

## EDITORIALA

### Gurekin ez

Geroz eta garbiago ulertzen zaio patronalari, geroz eta garbiago hitzegiten baitu azken boladan. Lehendik ere zalantza arrasto txikienik ez genuen bere nahiaz, baina orain negoziazio kolektiboaren erreformak eskura jarri dizkion bitarteko guztiakin pozez zorutzen dabil. Agian erreforma basatiak balio izan duen gauza bakarretarako horretarako izan da: begiak ireki eta jakin patronalak ez diola, inolaz, uko egingo erreformaren aplikatzeari bere gordintasun osoan.

Herrialdetako patronalak, bederen, etengabe ari dira sindikatuen jokabidea gaitzesten, beraiek mahai ganean jarritako hitzarmenen edukia ez omen dituzte onartzen eta. Patronalaren jardunean lotsagarria da –eta lizuna ere– herrialdetako hitzarmenak sinatzeko prestutasuna agertzea, baldin eta sinatutakoa ez betetzeko bitarteko guztiak mantentzen bazaizkio. Beraz, hitzarmenak ez lirake lotesleak, gomendio hutsean geratuko lirake, aldiz. Dialektika horretan patronalak, benetako negoziazio kolektiboaren orde, zartagina kirtinatik ez uzteko zina egin du, lan harremanen katean duen indarrezko posizioa sendotze bidean.

Sindikatu artean, gainera, begiz jota gauzkate. Ulertzina egiten omen zaie, gehiengoa dugun sindikatua izanik, konfrontaziozko jardunean aritzea, Europa osoan ematen omen den egoeraren isla bakarra ei gara eta. Esanetan sakonduz, lan harremanak egituratzeko, elkarriketa sozialetan partaite izateko eta horrelako bitxikeriatan konplize izateko jaiok gura nonbait. Hor nahi gaitu patronalak, gure zilegizko interesei uko egin eta amore emateko. Ezin garbiago hitzegi.

Hitzak leundu daitezke, irauli, zentzua galbideratu, mozorrotu eta arrosa kolorez margotu ere. Baina funtsean interesen borroka dago jokoan, bere interesa gure interesen aurka. Hau zer da ba, klase borroka baino? Zaharkituztat jotzen dituzten honelako kontzeptuak, lan harreman modernoan aurkakoak omen dira eta. Egiazki, lan harreman modernoak klase borrokaren interesak lausotzeko burutuak daude eta patronalaren nahiak gailentzeko. Gu ez gauda horretan.

## ELA denuncia que dar dinero público a la banca para quitárselo a la gente es injusto e inmoral

# LA BANCA SIEMPRE GANA

ELA ha calificado de "injusto e inmoral dar dinero a la Banca para quitárselo a la gente", tras conocer la noticia del préstamo de 100.000 millones de euros concedido por Bruselas al gobierno español para sanear la Banca española. Para ELA, la ayuda europea "no es un rescate sino un empujón al precipicio cuyas consecuencias más inmediatas serán más paro y más recortes sociales".

Mikel Noval, responsable de política social, ha destacado que la ayuda europea no es tal, sino un préstamo al gobierno y no a la Banca, ya que será el ejecutivo quien deberá devolver el dinero y a un tipo de interés no muy ventajoso –entre el 3 y el 3,5%, según fuentes no oficiales de la Comisión europea–. Conviene recordar, en este sentido, que las entidades han recibido préstamos al 1% mediante las subastas del Banco Central Europeo, interés bastante inferior al que se impone ahora al gobierno español.

ELA cree que una vez recibido el dinero el ejecutivo se lo dará a las entidades financieras para tapan sus gigantes agujeros y que apenas quedará nada para satisfacer las necesidades de crédito de las empresas o las familias.

Noval se mostró convencido, por otra parte, de que a cambio de ese dinero la Unión Europea impondrá al estado español las recomendaciones aprobadas recientemente por el Consejo europeo: reducción adicional del déficit público, aumento del IVA, adelanto de la entrada en vigor de la edad de jubilación a los 67 años... Es decir, será el conjunto de la sociedad el que acabará pagando los desmanes de la Banca.

### En definitiva, ELA concluye que:

- Lo anunciado el pasado 9 de junio es **un paso más en una estrategia diseñada por el gobierno para trasvasar enormes cantidades de dinero público a la banca, recorriendo los derechos laborales y sociales**. Esta estrategia se basa en la mentira y en el acuerdo entre los poderes económico, financiero y político.
- Si no tienen dudas de que la banca va a pagar o de que invertir en la banca del estado español es rentable, que lo haga el capital privado, no el público. **No queremos que se les rescate con nuestro aval. Si les avalamos las víctimas seremos todos**. No nos fiamos. quere-



mos que respondan por todo lo que han hecho, como hacemos el resto de conciudadanos.

■ **La operación es un empujón al precipicio, no un rescate**. Va a suponer un empobrecimiento generalizado de la población, a través del aumento del paro y de la desprotección social.

■ **Dar dinero a la banca y quitárselo a la gente es totalmente injusto e inmoral**. Hay que dejar caer a la banca que lo ha hecho mal: no se puede premiar a los bancos irresponsables y oportunistas. El coste que tendríamos que asumir por dejarlos caer es mucho menor que el

vamos a sufrir por sacarlos a flote. No es justo que todos los días siga habiendo víctimas de los bancos codiciosos (personas que pierden casas a medias de pagar, empresas reales que no obtienen créditos para proyectos razonables), mientras que se da dinero a esos gigantes insaciables con pies de barro.

■ **El rechazo social y la movilización es la única vía para conseguir cambiar las políticas**.

**Nota:** En la página 2 está la valoración íntegra que presentó ELA el 11 de junio. El documento, tanto en euskara como en castellano, se puede leer en la página web del sindicato.

## IBERDROLA: IRABAZIAK 5.681 MILIOI. OGASUNARI EMANDAKO DIRUA: 0 EURO

Astekarria honen azaleko titularra zuzena da: bankak beti irabazten du. Baina, egia zor, ez da titular osoa. Izan ere, bankaz gain, badira beti irabazten duten beste asko. Horien artean, multinazional handiak. Batez ere, energiaren sektorearekin lotuta dauden eta urtero milaka milioi irabazten dituzten horiek. Iragan astean Bizkaiko Foru-Aldundiak aitortu zuenez Iberdrolak 2008an eta 2009an ez zion euro bakar bat ere ordaindu Bizkaiko Ogasunari Sozietateen Zergari zegokionez. Urte horietan 5.681 milioi eurotako irabaziaz izan zituen euskal multinazionalak.

ELAK uste du injustua eta inmorala dela halako dirutza irabazten duen enpresa batek zergarik ez ordaintzea. Honek agerian uzten du zerga-sistema enpresen eta kapitalaren neurria eginda dagoela.

Onartezina da botere politikoak Iberdrolaren moduko enpresekiko duen zurikeriazko jarrera; agintariak pribilegiozko tratua ematen diete, omenaldiak egiten dituzte eta abantailak eskaintzen dizkiete, enpresen jardueraren giza onerako delako aitzakiaz. Hala ere, gauza bat argi izan behar dugu: zergarik ordaintzen ez duena ez da giza onerako ari.

Badirudi Bizkaiko Aldundiaren ardurak oso pozik daudela Iberdrolak zergak ez dituelako ordaintzen; Sozietateen Zergaren egungo araudiarekin ere gustora daude. ELAK makina bat aldiz exijitu du zerga-sistema errotik aldatu behar dela. Iberdrolarekin gertatutakoa beste adibide soil bat da.

## ELAk salatzen duenez, hartutako neurrien helburua bankuei dirutza publikoa ematea da, eskubide laboral eta sozialak murrizten diren bitartean

# BULTZAKADA BERRI BAT AMILDEGIRANTZ

2012ko ekainaren 9an eurotaldearen bilera bat izan zen bideokonferentzia bidez; hor Espainiako gobernuak aurreratu zuen "epe laburrera" (bestetik zehaztu gabe) diru kopuru handi bat eskatuko zuela maileguan. Beraz, eskaria eta baldintzak ez dira jakinak.

Eurotaldearen komunikatuak dienez, mailegua 100.000 milioi eurokoa izango da, hots, espainiar estatuko administrazio guztiek 2011n izan zuten defizita baino gehiago, Barne Produktu Gordinaren %10.

Mailegua gobernuari ematen diote, ez bankuei. Dirua Bankuen berregituratze ordenaturako Funtsak (FROB) jasoko du; funts hau Espainiako gobernuaren esku dago. FROBek, Gobernuak alegia, jasoko du dirua, eta gobernuak berak itzuli beharko du, interes bat ordainduta.

Mailegua gobernuak itzuli behar du, ez bankuek. Eurotaldearen komunikatua argia da: "Espainiako gobernuak finantza-laguntzaren erantzukizun bete izango du eta Elkar aditzeko Memoranduma sinatuko du". Memorandum honetan jasoko dira gobernuak aintzat hartu beharko dituen baldintza eta konpromisoak.

Gobernuak dirutza hori bankuei emango die. Ez die mailegu gisa helaraziko, eman egingo baitie, Bankiaren kasuan iragarri den legez. Begibistakoa da gobernuak ez duela dirurik irabaziko; galdu egingo du, asko gainera. Baina ez dakigu zenbat. Bankiari gobernuak 23.500 milioi euro emango dizkio, bankuaren kapitala eskuratzeko. Operazio honen helburua bankua saneatzea da eta berriro pribatizatzea; zentzuzkoa da uste izatea pribatizazio hori, bankua irauteko gauza bada, oso merke aterako dela. Eta gauza bera gertatuko da kasu guztietan.

Bankuen eskuetara pasako den errenta kopuruak langabezia eta murrizketa sozial gehiago ekarriko ditu. ELAk ez ditu onartzen engainurako erabiltzen diren izenak, hala nola "erreskatea" edota "baldintza oso egokiak dituen finantziario europarra":

- Grezia, Irlanda eta Portugalen egin dituzten operazioak ez dira erreskateak izan, amildegirako bultzakadak baizik. Hain zuzen hori ari da orain espainiar estatuarekin gertatzen. Lau kasuetan gauza bera gertatzen da: gobernuari emandako maileguak ez dira herritarrentzat, enpresa pribatuentzat baizik. Betiere diruaren zati handi bat zuzenean bankuei ematen zaie, orain espainiar estatuan gertatzen den bezalaxe.

*La operación no es un rescate, es un empujón al precipicio; supondrá un empobrecimiento generalizado de la población*



- Finantzaketak ez du baldintza errazik izango. Filtrazioen arabera, interes-tipoa %3 eta 3,5 bitartekoa izango da, hots, Europako Banku Zentralak EBko finantza-erakundeei eman dien dirua baino garestiago (hau %1an zegoen).

- Ajuste- eta murrizte-politikak areago egingo dira, eta horrekin batera langabezia eta gizarte-babesaren desagerpena. Operazio honek defizita eta zor publikoa handitzea eragingo du. Gobernuak defizita eta zor publikoa gutxitzeko erabakitzen dituzten politikak ikusirik, baliabideak bankuen esku jartzeak beste gai batzutarako aurrekontua murriztuko du: osasungintza, hekuntza, gizarte-prestazioak, etab. Bankuei dirua eman eta jendeak behar duenetik kenduko da.

Ez da egia aurrekontu-politikari eta gizarte-murrizketei dagokienez baldintzarik ezarriko ez denik:

- Gobernuak, batetik, kreditua bere interesekin itzuli beharko du, eta bestetik, mailegua sinatzen denean politika publikoei buruzko baldintzak ezarriko dizkiote. Gaur ez dakigu oraindik baldintza horiek zein diren. Gobernuak dio bankuentzat baino ez direla izango, baina hau sinestuko duen inor ez dago. Izan ere, Alemaniako finantza-ministroak esan baitu: bankuentzako exijentziak baldintzen zati bat besterik ez dira. Gobernuaren prozesu honetan gezurrari gezur jarrenda da, eta hala jarraitzen du (adibidez, Rajoyk duela hilabete eskas esan zuen diru publikotik bankuentzat ez zela euro bat ere emango; duela hamar egun ukatu egin zuen Europar Batasunari dirua eskatzekoa zenik).

- Eurotaldearen komunikatuak dio "arlotan aurrerapidea zorrotz eta aldian-aldian behatuko da, finantza-laguntza eman ahala." Zein arlotan ari da? Aurrekontu-politika,

desoreka makroekonomikoak zuzentzea edota egiturazko erreformak. Beraz, eurotaldeak gobernuari dirua emateko erabakia eskubide laboral eta sozialak murriztearekin lotzen du. Hori gertatu da orain arte Grezian, Portugalen eta Irlandan.

- Politika hauek baldintzatuta daudela nabarmena da: Europar Kontseiluak maiatzaren 30ean Espainiako gobernuari egin zizkion gomendioetan besteak beste hauek aipatzen ditu: defizit publikoa are gehiago murriztea, gizarte-kotizazioak jaitea, BEZa eta beste zeharkako zerga batzuk gehitzea, erretiro adina 67 urtera arte atzeratzeko erabakia lehenago aplikatzea, eta pentsioekiko murrizketa gehiago ezartzea. Zalantzarik gabe, etorkizuneko akordioak honelako gomendioak gauzatzeko "betebeharra" jasoko du.

- Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) egitekoa gainbegiratzea izango da; honek argi uzten du politikak herritarrentzat ondorio latzak izango dituztela. Eurotaldearen komunikatuak dienez, "NDF gonbidatzen dugu aldian-aldiko txostenen bidez finantza-laguntzaren aplikazioa babestera eta gainbegiratzera". Beraz, NDFak kontroleko egiteko bat izango du, eta hori politikak baldintzatuta daudelako.

Ez da kreditu gehiago emango; aitzitik, finantza-erakundearen zulo izugarriak estaltzeko erabiliko da. Finantza-sektorearen inguruan orain arte erabaki diren erreforma guztiekin kreditua enpresa eta familiei iristeko aukera erraztu nahi omen zen. Baina ez da halakorik gertatu, ezta orain gertatuko ere. Finantza-erakundeek berebiziko zuloak dituzte, eta zulo hauen benetako neurria ezezaguna da; gobernuak sartzen duen dirua zuloak estaltzeko izango da. Gogora dezagun joan den abendu eta otsaila bitartean Europako Banku Zentralak 200.000 milioi gorako maileguak eman dizkiela espainiar bankuei, hiru urterako epearekin, baina horregatik kreditua ez da gehitu.

Politika hauek aplikatu eta gizartea desinformatzeko akordio politiko bat dago. Informazio mordoa ematen digute, baina benetan erabaki denari buruz oso datu gutxi. Hizkuntza manipulatua egiten da. Gobernuaren edozein indar dagoela ere, ezarritako politikak antzeko norabidean joan dira. Zalantza bat pizten da, ea beste estatu-itunen bat itxiko ote duten herritar gehienek kalterako harrapaketa hau babesteko.

## ASMOA BANKUEI DIRUA EMATEA DA

- Ekainaren 9an iragarri zena gobernuaren estrategiako beste urrats bat da: bere helburua bankuei dirutza publikoa ematea da, eskubide laboral eta sozialak murrizten diren bitartean. Estrategia honen oinarriak gezurra eta botere ekonomiko, finantzariko eta politikoaren arteko adostasuna dira.

- Zalantzarik ez badute bankuak ordaintzeko gai izango direla, edota espainiar estatuko bankuetan inbertitzea errentagarria dela, inberti beza kapital pribatuak. Ez dugu nahi gure bermearekin erreskatatzerik; abalatu gero, guztiok izango gara biktimak. Ez gara fio. Egin dutenari aurre egitea nahi dugu, gainerako herritarrok aurre egin behar izaten dugun bezala.

- Operazioa amildegirako bultzakada bat da, ez erreskate bat. Herritar gehientzako txirotea ekarriko du, langabezia eta gizarte-babesaren galera izango baitira nagusi.

- Bankuei dirua ematea, jendeari kentzen dioten artean, bidegabea eta immoral da. Gaizki kudeatutako bankuei utzi egin behar zaie erortzen: ezin dira arduragabeak eta oportunistak saritu. Erortzen uzteak eragingo lukeen kostua onbideratzea baino merkeagoa izango da. Ez da bidezkoa egunero banku gutziatsuek biktimak egitea (etxebizitzak galtzen duen jendea, hura ordaintzeko erdibidean denean; arrazoizko proiektuetarako krediturik lortzen ez duten enpresa errealeak), eta aldi berean oinarri ustelak dituzten erraldoi aseezin horiei dirua ematea.

- Politikak aldarazteko bide bakarra ukapen soziala eta mobilizazioa ditugu.

*Las entidades financieras tienen unos agujeros enormes; el dinero que meterá el gobierno es para tapar los agujeros*

**Aurten, lehenengo aldiz, ez da akordiorik lortu Lanaren Nazioarteko Erakundearen eta Lanaren Nazioarteko Biltzarraren konferentzian; patronalaren jarrera oldarkorra izan da arrazoia**

# “PATRONALAK BAT EGIN DU MUNDU MAILAN GREBA-ESKUBIDEAREN AURKA”



horrelakorik. Euskal Herrian aspaldi salatzen ari gara patronalak greba-eskubidearekin amaitzeko asmo irmoa duela; Genevan gertatu berri dena ikusi ostean, salaketa hori mundu zabalera zabaldu genezake”.

Hala mintzo da ELAren nazioarteko harremanetarako arduradun Laura Gonzalez de Txabari Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Lanaren Nazioarteko Biltzarrak maiatzaren 20tik ekainaren 15era Genevan egin duten Konferentzia aztertzeko orduan. ELAko ordezkari bat Genevako Konferentzian izan zen.

“Bi erakunde horiek –Lanaren Nazioarteko Erakunde eta Lanaren Nazioarteko Biltzarra– urtero biltzen dira Genevan, hiru alderditako ordezkariak bidaliz. Eta aurten, lehenengo aldiz bi erakunde horien ibilbidean, ez da akordiorik lortu, langileen eskubideak urratu direneko 25 kasuak hautatzerakoan. Gai hori Arauak Aplikatzeko Batzordean eztabaidatzen da. Aurten, 1926. urteaz geroztik lehenengo aldiz, hots, Arauak Aplikatzeko Batzordea abian jarri zenetik, ez dira ados jarri, zerrenda osatzean, langileen alderdia eta enpresariaren alderdia; eta beraz ez da eztabaidarik izan kasu bakar bati buruz ere”.

Gonzalez de Txabari salatzen duenez, patronalaren jokaeraren zergatia

honakoa da: enpresariak ez dute onartu nahi izan greba-eskubidea urratzea islatzen duen gertaerarik izan denik ere. “Askatasun Sindikalaren eta Sindikatze-ko Eskubidearen babesari buruzko 87 Hitzarmenak greba-eskubidea babesten ez duela argudiatu dute, eta Adituen Batzordeak hitzarmen horretaz egin ohi duen interpretazioa lerratia eta beti langileen aldekoa dela gehitu”.

“Erabaki hori –gaineratzen du– oso eraso larria da langileen eskubideen aurka, Lanaren Nazioarteko Erakundearen aurka, eta erakunde horretako ikus- kapen-baliabideen aurka. Enpresariak urteak daramatzate erakundearen jarduna ahultzeko asmotan, eskubideen urraketarik larrienak ezkutuan gordetzeko, eta nazioarteko zaintza saihesteko. Greba-eskubidea, konstituzio eta nazioarteko itun askotan bermatzen bada ere, eragozgarria da enpresariaren diruzalekeriarako; horregatik oraingo

egoeran, gobernuen laguntzaz, lan- eskubideak eta negoziazio kolektiboak suntsitu ondoren, greba-eskubidea da haien hurrengo helburua”.

La viñeta que acompaña esta información podría ser de hoy, pero no. Apareció en el Landeia de abril de 1992. Hace más de 20 años. En aquel entonces, el gobierno de Felipe González, a requerimiento de la patronal, amenazó con una nueva ley de huelga. En el dibujo Martínez Noval, ministro de Trabajo, maneja la guillotina, con la ayuda de un solícito Vizcaíno, presidente de Confebask. La patronal lleva años luchando en todo el mundo para acabar con el derecho de huelga. Ahora nos toca seguir luchando por este derecho fundamental.

*El derecho de huelga, garantizado en muchas constituciones y tratados internacionales, supone una amenaza a la codicia empresarial, y en un momento en el que la patronal, con la ayuda de gobiernos, está consiguiendo dismantelar la negociación colectiva y echar por tierra derechos laborales, ese es su próximo objetivo.*

Oso larria da azken egunetan Genevan gertatutakoa. Enpresariak euren pribilegioen aldeko ofentsiban urrats berria eman dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen baitan. Erakunde hau sortu zenetik inoiz ikusi gabeak ginen

## LABURREAN / BREVES

### ● La dirección de Amma suma seis despidos injustificados a su negativa de negociar el convenio

La dirección de Amma Navarra –empresa del sector sociosanitario– acaba de sumar seis despidos completamente injustificados a su negativa de negociar el convenio propio de empresa caducado desde finales de 2009. Para denunciar esta decisión, la plantilla realizó una asamblea y una concentración frente a la sede central de Caja Navarra en Iruñea. No hay que olvidar que Caja Navarra es la principal accionista de Amma.

Imanol Paskual, responsable de ELA-Gizalan en Navarra, anuncia que de no cambiar la situación se van a convocar varias jornadas de huelga para la última semana de junio. ELA cuenta con mayoría en el

Comité, con 21 delegadas sobre un comité de 33. Además Paskual recuerda que “no hay que olvidar la responsabilidad del Gobierno de Navarra como titular de buena parte de las plazas concertadas en las residencias de Amma”.



### ● Los recortes provocan una reducción de la contratación de personal en la Diputación de Bizkaia

Delegadas y delegados de ELA, LAB, UGT y CCOO de la Diputación foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos entregaron el martes 12 de junio 2.236 firmas de trabajadoras/es en apoyo de la plataforma unitaria para la negociación del convenio 2012. Con esta acción se da continuidad a las movilizaciones y acciones desarrolladas desde primeros de año para denunciar las imposiciones y los recortes de la Diputación y exigir una verdadera negociación.

En los últimos meses los sindicatos con representación en la Diputación foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos han llevado a cabo concentraciones en denuncia de los recortes en las sustituciones de personal en las residencias del Instituto Foral de asistencia Social de Leioa, Gallarta, Orduña y Elorrio. Estos recortes están provocando una reducción drástica de la contratación de personal y un deterioro importante de las condiciones de trabajo y de la calidad asistencial. También en diversos centros de trabajo de la Diputación se han realizado concentraciones contra los recortes y en defensa de los servicios públicos y del empleo público.

### ● El Gobierno de Navarra entierra la Ley de Implantación de las 35 horas en la Administración

En 1999, y después de una pelea social y sindical, el Parlamento de Navarra aprobó la ley de reducción del tiempo de trabajo en la Administración. En la exposición de motivos quedó recogido que la reducción del tiempo de trabajo en la Administración se hacía con el objetivo de crear empleo. Trece años más tarde y con más de 50.000 personas en el paro, el Gobierno de Navarra ha ampliado la jornada a 37,5 horas semanales. Esta decisión va a ocasionar más personas en el desempleo, más cargas de trabajo y peores servicios públicos. ELA considera inaceptable que el propio Gobierno de Navarra esté destruyendo empleo. Esta decisión supone un paso más en la política de privatizaciones y desmantelamiento del sector público que se está llevando a cabo por parte de UPN y PSN.



**Unai Martínez, secretario general de ELA-Metala**

## “LA PATRONAL NO DUDA EN MENTIR PARA CHANTAJEARNOS”



**-La ofensiva patronal está siendo especialmente dura en el sector del metal. ¿Qué análisis haces de la actual coyuntura en el sector?**

-La ofensiva es muy dura y generalizada. Por toda Euskal Herria podemos encontrar ejemplos. En cualquier ámbito donde la patronal cree que puede sacar provecho están a la ofensiva. Empresas con beneficios, sin beneficios, con costos laborales ínfimos, con cargas de trabajo... Todo vale para intentar destruir nuestros derechos.

**-¿Qué mecanismos está utilizando la patronal para lograr sus objetivos?**

-El principal es el miedo. Y para ello no dudan en amenazarnos. Estamos, sin duda, ante el mayor chantaje de los últimos 30 años contra nuestros derechos laborales. Las cuentas que nos presentan algunas empresas son manipuladas sin rubor alguno, todo vale para intentar rebajar las condiciones laborales. Tenemos numerosos ejemplos de empresas que hace unos meses anunciaban cuantiosos beneficios y ahora, tras la reforma, como por arte de magia, esos beneficios han desaparecido. No dudan en mentir para chantajearnos.

**N**ada más anunciarse la reforma laboral presentada por el PP, ELA advirtió que la patronal estaba muy contenta y que no dudaría en utilizar los elementos más duros para seguir manteniendo su posición privilegiada. Han pasado cuatro meses y, desgraciadamente, ese vaticinio se está cumpliendo. Unai Martínez, secretario general de ELA-Metala, denuncia que esta ofensiva tiene tres objetivos básicos: bajar los salarios, aumentar la jornada laboral y destruir todo tipo de derecho laboral allí donde lo hubiera. Paradójicamente, en el metal de Alemania se ha acordado una subida del 4,3%.

**-¿Qué ejemplos puedes poner de lo que estamos hablando?**

-No son los únicos, por supuesto, y a riesgo de no citar alguno hay casos muy flagrantes. Por ejemplo, Laminações Arregui, de Gasteiz –actualmente Celsa Atlantic-. La empresa está planteando una bajada salarial del 30%, que se trabajen 100 horas más al año y que 91 personas sean despedidas. Bien, el coste laboral de la empresa es de menos del 6% de la producción.

Otro ejemplo: Corrugados Azpeitia. La dirección ha salido diciendo que sobran 60 trabajadores y trabajadoras, que hay que bajar el salario un 35% y que hay que trabajar 49 horas más cada año. Además plantea un ERE de suspensión. Lo paradójico, o no, es que planteen que hay que despedir a decenas de personas porque dicen que no hay trabajo y que luego pidan a los que se quedan que deben trabajar más horas.

**-En esta coyuntura, ¿qué tenemos que decir a las y los metalúrgicos de Euskal Herria?**

-Está mucho en juego. Por ejemplo, nuestra propia dignidad como clase trabajadora. En ELA lo tenemos claro: llevamos más de cien años luchando y seguiremos luchando. Solo podremos parar esta ofensiva con una clase trabajadora dispuesta a defender sus derechos, con el mismo ahínco con el que la patronal defiende sus privilegios.

Hemos luchado en la clandestinidad, en todo tipo de coyunturas económicas, en situaciones en las que el paro y la amenaza patronal eran similares a los de ahora... Y, gracias a la lucha de la clase trabajadora, siempre hemos salido adelante. Ahora también saldremos.

## ELA EN LA CUMBRE DE LA TIERRA RIO+20 Y EN LA CUMBRE DE LOS PUEBLOS

Una delegación conjunta de ELA y Bizi! acudirá a la Cumbre de la Tierra Río+20 que tendrá lugar del 20 al 22 de junio, así como a la Cumbre de los Pueblos, alternativa de la anterior, y que se desarrollará entre los días 15 y 23 de junio.

ELA y Bizi! junto con movimientos, redes y organizaciones de todo el mundo han firmado el manifiesto por *Nuestros Derechos y los Derechos de la Naturaleza, contra la Mercantilización de la Vida y el Reverdecimiento del Capitalismo*. Los firmantes del documento destacan que “nuestro desafío será contribuir significativamente en la coordinación de nuestros esfuerzos por construir economías y sociedades no capitalistas, justas y equitativas, en armonía con la Naturaleza entre todos y todas; superando el hambre, el empobrecimiento y la explotación”.

Ainhara Plazaola, responsable de medio-ambiente, destaca que “nuestro objetivo será hacer frente a la maquinaria del capitalismo que esta vez se viste de verde y conseguir una justicia social y ambiental de verdad. Buscaremos alternativas para recuperar el equilibrio entre las personas y el medio ambiente. Hay alternativas y este es el momento para ponerlas en marcha, sino será demasiado tarde”.

### ACTIVIDADES TAMBIÉN EN EUSKAL HERRIA

Durante la cumbre de Río +20 se llevarán también a cabo movilizaciones en Euskal Herria. El 20 de junio, será el día de acción sobre la justicia social y ambiente, en contra de la mercantilización de la vida y en favor de la defensa de los bienes comunes. El 21 de junio tendrá lugar un dúplex entre Río, Bilbo y Baiona en la que participarán las delegaciones de ELA y Bizi!. Por la tarde, se celebrará una batukada en Baiona. El 22 de junio se llevarán a cabo nuevas movilizaciones.

[www.ela-sindikaturua.org](http://www.ela-sindikaturua.org)

**ELA** astekaria

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikaturua.org](http://www.ela-sindikaturua.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207